



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta datitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udaleneholtza.araba.eus/experte/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA>  
E0144708b0300a10c7207e9216020a0eu

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

## IRAGARKIA

2025eko ekitaldirako aurrekontu orokorra egitaratzeko udal araudiaren VI. eranskinean honako hau azaltzen da:

### **ETXEKO KONPOSTATZEAGATIK DIRULAGUNTZAK LUZATZEKO OINARRIAK**

#### **I.- LEGE ETA EKONOMIA ESPARRUA.**

Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, horrela definitzen ditu diru-laguntzak: Administrazioak pertsona publiko eta pribatuei ematen dien dirua, betiere honako baldintzak betetzen badira:

- Hartzailearen kontraprestazio zuzenik ez izatea.
- Helburu jakin bat betetzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat burutzeko, jarrera berezi bat hartzeko edo egoera bereziren bati aurre egiteko bideratuta egotea (egina edo egiteke), betiere, hartzaileak aurrez ezarritako betebeharrak material edo formalak konplitu beharko dituelarik.
- Finantza proiektu, ekintza, jarrera edo egoera horren helburua izatea erabilera publikoko eta interes sozialeko jarduera bat edo helburu publikoren bat sustatzea.
- Aipatutako 38/2003 Legearen 9. artikulua xedatzen du, diru-laguntzak eman aurretik, emakida arautzen duten oinarriek ezarritako arauak onartu beharko direla, Legez ezarritako terminoetan. Udala udalerrian hondakinak murrizteko etxeko konpostatzeagatik dirulaguntzak emateko esparrua arautzea da Oinarri hauen helburua; baita gainerako hondakinen (papera, beira, plastikoa, olioak, etab.) kudeaketa egokia egitea ere.

#### **II.- XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.**

Oinarri hauen helburua etxeko konpostatzeagatik dirulaguntzak jaso ahal izateko baldintzak arautzea da, hondakinen kudeaketa egokia izan dadin; materia organikoaren bereizketa eta berau konpost bihurtzea praktikan jarrita, hondakinen "errefusa" ahalik eta gehien murriztuko da. Era berean, gainerako hondakinen (papera, beira, plastikoa, olioak, etab.) kudeaketa egokia egin beharko da.

#### **III.- DEFINIZIOA.**

Konpostatzea materia organikoa deskonposatzeko prozesu kontrolatu eta azeleratua da, mikroorganismoen jardueran oinarritua, konpost izeneko produktu egonkorra sortzen duena. Horrek ongari natural gisa erabiltzeko ezaugarri bereziak ditu.

#### **IV. KONPOSTATZEKO PROZESU-MOTAK.**

Familia bakarreko etxebizitzetan zein jabeen erkidegoetan egin ahal izango da, baita hiri-hondakin solidoen bilketa-tasaren eraginpeko beste establezimendu batzuetan ere (txokoak, hirugarren adinekoen egoitzak, pabiloiak, etab.).

Jabeen erkidegoen kasuan, parte hartuko duten bizilagunek zatiki organikoa aurrez banatu beharko dute etxean, eta, ondoren, konpostagailu komunitarioan utzi.



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta datitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegetza.araba.eus/experte/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA>  
E0144708b0300a10c7207e9216020a0eu

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

## V. ONARTZEKO IRIZPIDEAK.

Barrundiako Udalak honako onartzeko irizpide hauei jarraiki emango ditu dirulaguntzak:  
.- Barrundiako Udalak hondakin solidoak biltzeagatik emandako udal-tasari dagokion ordainagiri baten titularra izatea.  
.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzza egunean izatea.  
.- Barrundiako Udalak hondakin solidoak biltzeagatik emandako udal-tasari dagokion ordainagiria helbideratua izatea.

## VI. ESKAERAK.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, eskabidea aurkeztu beharko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako formulen arabera, ekitaldi bakoitzeko ekainaren 15a baino lehen.  
Une horretan aurkeztuko dituzte interesdunek aurreko atalean aipatutako baldintzak zuritzen dituzten dokumentuak.

## VII. IKUSKATZEAK.

Dirulaguntza lerro honi lotzen zaizkion herritarrek Udalak izendatzen dituen langileek ikuskapena egin dezaten errazteko eta etxebizitzan sartzen uzteko konpromisoa hartzen dute, baldintza hauek betetzen direla egiaztatzeko:

- Hondakinen gaikako bilketa (papera, beira, ontziak eta sukaldeko olioak) behar bezala egiten dela.
- Etxeko konpostajea egiten dela, hau da, materia organikoa etxean bertan tratatzen direla. Bermikonpostajea egiten bada, egiaztatu egingo da bertan sartzen direla sukaldeko landare hondakin guztiak. Lorategiko konpostajea egiten bada, egiaztatuko da lorategiko zein sukaldeko hondakinak jartzen direla. Bi kasuetan ikusi beharko da konpostaje prozesu osoa (hondakin freskoak, usteltzen ari diren hondakinak eta ustelduak), baita ere hainbat mikroorganismo daudela.

Udal-zerbitzu teknikoek egindako ikuskapenaren aldeko txostena beharrezkoa izango da dirulaguntza emateko.

## VIII. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kasu bakoitzean aplikatzen den hondakin solidoak biltzeagatik tasaren %50a izango da.

## IX. DIRULAGUNTZA-LERROAREN GEHIENEO ZENBATEKOA 2025EAN.

2025eko ekitaldirako dirulaguntza-lerroaren gehieneko zenbatekoa 4.000,00 €-koa da.

## X. ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRAK.

Arau-haustetzat joko da Oinarri hauetan jasotako betebeharrak osorik edo zati batean ez betetzea.  
Ikuskapen baten bidez ezarritako baldintzak ez direla betetzen egiaztatzen bada, 700,00 €-ko zigorra ezarriko da, zehapen agiria burutu ondoren.

Denen ezagutzarako argitaratzen da.

ALKATEA,

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Alkatea / Alcalde	10/02/2025 10:19